

2023KO MAIATZAREN 2AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bia.

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hogeitahiru

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES

ETORRI GABEAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- EDORTA DIAZ DEL RIO

- JON OLANO ARRESE
- AINARA AYESTARAN ALDASORO
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran ere pare hartzen dute informatikariak (Arantxa Sanz Lasa) eta hauteskunde prozesuaz ere enkargatzen den administrariak (Agurtzane Arakama Laplace).

UDAL ETA BATZAR OROKORRETAKO HAUTESKUNDEAK, 2023. HAUTESKUNDE-MAHAIK OSATZEKO ZOZKETA.

Hauteskunde Orokorreko Araubidearen ekainaren 19ko 5/1985 Lege organikoaren 26. artikulua arabera, hauteskunde-mahaien osaketa Udalari dagokio eta zozketa publikoa egingo da hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean Toki Hauteskundearen deialdia egin ondoren.

Apirilaren 3ko 207/2023ko Erret Dekretua Toki Hauteskundearen deialdia arautzen duena, Estatuko Aldizkari Ofizialean, 2023-04-4ko argitaratu zen.

Hauteskundeetako mahaiak osatzeko kideen zozketa INEko *IDA_Celec* aplikazio informatikoa erabili da.

Hauek dira irizpideak:

1.- Zozketa egiteko Espainiako Estatistika Institutua erakundeak emandako hautesle zentsu osoa erabiliko da, 2023ko otsailaren 1rekiko itxitakoa. Izendatuak idazten eta irakurtzen jakin beharko dute eta 18 urte edo gehiago eta 70 urte baino gutxiago dutenak izango dira, baina hirurogeita bost urtetik aurrera izendatutakoek uko egin dezakete zazpi eguneko epean alegazioa aurkeztuta.

2.- Beasaingo udalerrian barrutia bakarra da eta zortzi sekzio daude eta ondorengo hauteskunde-mahaiak eta hauteslekuak daude:

MURUMENDI IKASTETXEA	UDALETXEA	LOINAZPE IKASTETXEA
1-U mahaia (letrak: A-Z)	2-A mahaia (letrak: A-I)	5-A mahaia (letrak: A-H)
9-A mahaia (letrak: A-K)	2-B mahaia (letrak: J-Z)	5-B mahaia (letrak: I-Z)
9-B mahaia (letrak: L-Z)	3-A mahaia (letrak: A-H)	7-A mahaia (letrak: A-H)
	3-B mahaia (letrak: I-Z)	7-B mahaia (letrak: I-Z)
	4-A mahaia (letrak: A-H)	8-U mahaia (letrak: A-Z)
	4-B mahaia (letrak: I-Z)	

3.- Mahai bakoitzeko ondorengo karguak izendatzen dira:

- Lehendakari, titularra
- Lehendakariaren 1. ordezkoa
- Lehendakariaren 2. ordezkoa

- 1. Mahaikide, titularra
- 1. Mahaikidearen 1. ordezkoa
- 1. Mahaikidearen 2. ordezkoa

- 2. Mahaikide, titularra
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa
- 2. Mahaikidearen 2. ordezkoa

4.- Zozketa egiterakoan ordea, erabaki da kargu bakoitzeko lau ordezkio aurreikustea (nahiz eta lehenengo biak kontsideratu titularren ordezkioak izateko), alegazioak aurkeztu ondoren mahairen bat kargurik gabe geratu ezker berriro ere zozketa ez egin beharra izateko.

5.- Zozketa bakarra egingo da, hau da, mahi guztiak kontuan izanda egingo da eta ez mahai bakoitzeko.

Aipatutako irizpideak kontuan izanda, ondorengo jasota geratu da:

Lehena. Beasaingo udalerriko hamalau mahaiekiko zozketa publiko bakarra egin da, lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko eta bidez batez, mahaiko kide bakoitzak izango dituen bi ordezkioak izendatzeko.

Bigarrena. Zozketa egin ondoren, Idazkariak irakurri ditu mahai bakoitzeko kideak zeintzuk diren.

Hirugarrena. Izendatutakoei jakinaraziko zaie karguaren izendapena eta izendapenarekiko Tolosako Eskualde Hauteskunde Batzordearen aurrean bidezkoak diren alegazioak aurkezteko eskubidea izango dute zazpi eguneko epean.

Laugarren. Alegazioak ebaztea, Tolosako Hauteskunde Batzordeari dagokio.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera, goizeko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.